




Audientzia ikerkuntza eta big data



Eka. 29 - Eka. 30 2021

Kod. I04-21

Mod.:

Online zuzenean Aurrez aurrekoa

Edizioa

2021

Jarduera mota

Uda Ikastaroa

Data

Eka. 29 - Eka. 30 2021

Kokalekua

Miramar Jauregia

Hizkuntzak

Euskara Gaztelera

Balio akademikoa

20 ordu

Antolakuntza Batzordea

Fundación
BBVA



Azalpena

Uda Ikastaroa aurrez aurre ospatuko da eta online zuzenean parte hartzeko aukera ere egongo da ZOOM bidez. Matrikula prozesuan nola parte hartuko duzun aukeratu: aurrez-aurre edota online zuzenean.

Komunikabide tradizionalen eta berrien kontsumoari buruzko informazioa eskuratzea zeregin garrantzitsua da komunikazio politikak definitzen dituztenentzako, publizitatean ari direnentzako, komunikabideetako profesionalentzako eta, noski, audientzia ikerkuntzara dedikatzen diren enpresa eta erakundeentzako. Izan ere, digitalizazioaren aroan eta, bereziki, interneten etorrerarekin ugaritu egin dira jendeak informatzeko, entretenitzeko eta komunikatzeko erabiltzen dituen plataformak eta gailuak eta horrek zaildu egiten du herritarren kontsumoak aztertzeko prozedurak.

Ezinbestekoa da gaur egun, audientzia-ikerkuntza egiten duten enpresa eta erakunde nagusienek erabiltzen dituzten metodologia eta baliabide teknologikoak ezagutzea eta, bereziki, joera berriak nondik nora doazen jakitea.

Hori gutxi balitz, datuen analisian ematen ari diren aldaketek sekulako garrantzia daukate eta *big data* etiketapean kokatzen diren errekurso analitikoek berri edukitzea oso interesgarria da.

Uda ikastaro honen bidez, Estatu espainiarrean zein Euskal Herrian martxan dauden audientzia-ikerketak nagusienek berri izango dugu, baita horien atzetik dauden enpresa eta erakundeena ere: AIMC, Kantar Media, Comscore, CIES, Kultur Behatokia...

Gainera, audientzia-ikerkuntzatik *big data*ra pausuak nola ematen ari diren aztertuko dugu, modu horretara, etorkizuneko joerak zeintzuk diren azalduz eta horren inplikazioetan sakonduz.

Arratsaldeko saioa TABAKALERAN / Actividad abierta optativa por la tarde en TABAKALERA:

Mesa redonda y entrevista / Ekitaldi berezia arratsaldean Tabakaleran: mahaingurua eta elkarriketa

Noiz / Fecha: 2021/ **ekainaren 29 eta 30 / 29 y 30 junio**

Ordua / Hora: 17:45

Plaza mugatuak / Plazas limitadas. Aforoa / aforo: 24 pertsona

Izena-emateko esteka:

<https://docs.google.com/forms/d/1Z62miVIM98suIqE7Jj12mKNmFHtczlep2QHL3Wfm8mM/edit>

Informazio gehiagorako / Para más información:

<https://www.tabakalera.eus/es/audiencia-de-medios-y-big-data#https://online.tabakalera.eus/es/>

Streaming zerbitzu irekia, Tabakalerako webgunean. Servicio de streaming en abierto, sin necesidad de inscripción disponible en sitio web de Tabakalera

Helburuak

Audientzia-ikerkuntzara dedikatzen diren enpresa garrantzitsuenen eta hauek burutzen dituzten ikerketak nagusienek gaineko informazioa gaurkotzea. Estatu espainiarren ari diren ikerkuntza-zerbitzu horiez gain Euskal Herrian egiten direnak aztertuko dira.

Gaur egun audientzia ikerkuntzan erabiltzen diren metodologi ezagunenek berri edukitzea: audimetria, online inkesta, online analytics, data analisisa...

Etengabea eraldatzen ari den informazio eta komunikazio teknologien eremuan kontsumoak neurtzeko eta aztertzeko probatzen ari diren sistemen gaineko informazio gaurkotua edukitzea.

Audientzia ikerkuntzatik *big data*ra ibilbidea egiten ari diren ikerketen berri izatea, erabilitako metodologietan sakontzea eta datuen balioaz jabetzea.

Ikastaroaren laguntzaile espezifikoak



Programa

2021-06-29

08:45 - 09:00	Erregistroa / Registro
09:00 - 09:15	Jardueraren zuzendaritzaren aurkezpena Edorta Arana Arrieta UPV/EHU - Irakaslea
09:15 - 10:15	“El estado de la cuestión: la investigación de audiencia hoy” José Andrés Gabardo Vallejo AIMC - Director Técnico
10:15 - 10:45	Atsedena
10:45 - 11:45	“Audimetriaren erronkak” Sandra Martínez Llopis Kantar Media - Teknikoa
11:45 - 12:45	“Hacia la investigación de audiencia única” Jaime Agulló Amorós ComScore - Director
12:45 - 13:45	“CIES: el futuro de las investigaciones de audiencia multimedia” Catalina Uzcanga Lacabe CIES - Zuzendaria

2021-06-30

09:15 - 10:15	“Kultur Behatokia: panela eta kultur kontsumoak” Mikel Etxeberria Agirresarobe Kulturaren Euskal Behatokia - Zuzendaria Aintzane Larrabeiti San Román ICC Consultors
10:15 - 11:15	“Iparraldearen kontsumo portaera” Ibai Agirrebarrena Mendiboure Euskararen Erakunde Publikoa EEP - Teknikoa
11:15 - 11:45	Atsedena
11:45 - 12:45	“Ikusiker, ikus-entzunezkoen kontsumoa aztertzeke panela” Beatriz Narbaiza Amillategi UPV/EHU - Irakaslea
12:45 - 13:45	“Behategia eta komunikabideen kontsumo digitala EHn” Libe Mimenza Castillo Euskarazko Komunikabideen Behategia - Zuzendaria
13:45 - 14:00	“Síntesis” Elena Neira Borrajo

Zuzendaritza



Edorta Arana Arrieta

UPV/EHU

UPV / EHuko irakaslea eta ikertzailea da 1988az geroztik. Aurretik, kazetari gisa lanean aritu zen ETBn, harrezkero hainbat ikus-entzunezko zein idatzizko komunikabideekin kolaboratzen du. Kazetaritzan lizentziatu zen 1982an, Euskal Herriko Unibertsitatean, eta 1995ean unibertsitate berean doktoratu zen. Irrati, telebistarako eta Interneteko programazioarekin lotutako gaiak irakasten ditu eta hainbat liburu eta artikulua argitaratu ditu gai horien inguruan. NOR ikerketa taldeko kidea da eta MINECO eta UPV/EHUK diruz lagundutako ikerketa proiektuetan lan egiten du.



Itziar Orbegozo Zurutuza

Tabakalera

Irakasleak



Ibai Agirrebarrena Mendiboure



Jaime Agulló Amorós

Comscore, VP Managing Director South EMEA



Mikel Etxeberria Agirresarobe

Eusko Jaurlaritza

Albaitaritzan lizentziaduna da (UCM) eta Euskal Kulturgintzaren Transmisioa Aditu Titulua burutua (Mondragon Unibertsitatea). Euskal kultura barne-kezka, Eusko Jaurlaritzaren Kultura Sustatzeko Zuzendaritzan aritua, batez ere, Sormen Lantegiak eta Arte Eszenikoak landuz. 2018tik Kulturaren Euskal Behatokiko arduraduna da, eta bertan bere eginkizun nagusia Behatokiaren zuzendaritza orokorra kudeatzea: aurrekontuak, eragiketa estatistikoak, azterlan kualitatiboak eta koordinazio lanak (Eustat, Kulturklik, web...). Azken batean Behatokiaren helburua bermatzea, zera da, kulturaren egoera eta bilakaerari buruz sistematikoki informazio ordenatu eta kontrastatua eskaintzea sistema kultural guztiari.





Aintzane Larrabeiti San Román

Filosofiako lizentziaduna da (Deustuko Unibertsitatea), eta Kultura Kudeaketako Masterra (DU) du. Bere lanbide-karrera kultura- esparruari lotuta dago, administrazio publikoan zein unibertsitatean eta enpresa pribatuan. Aholkulari- lanetan aritu da kultura-politikei, plangintza estrategikoari, aisiaren inguruko hezkuntzari, kalitatearen kudeaketari eta giza baliabideei lotutako arloetan. Azken hamabost urteetan bere lana Kulturaren Euskal Behatokiari oso lotuta dago. Laguntza teknikoaren koordinatzailea izan da (2006-2010). Ordurik hona Behatokirako ikerketa kuantitatiboetan zein kualitatiboetan parte hartzen du. ICC Consultorsekin lankidetzan dihardu 2006. urteaz geroztik, eta 2012an sartu zen enpresa horretan.



Sandra Martínez Llopis

Licenciada en Comunicación Audiovisual con 15 años de experiencia en el sector Audiovisual. Actualmente, como Ejecutiva de Cuentas en el equipo Comercial de Kantar Media Division, es responsable de las cuentas Mediaset, La Liga, CRTVG o NBC Universal. También ha trabajado en la Consultora de Audiencias GECA y en varios medios locales como Teledonosti o en la delegación de Onda Cero San Sebastián.



Libe Mimenza Castillo

UPV/EHU

Libe Mimenza Castillo (Elorrio, 1988) kazetari, komunikazioaren ikertzaile eta hedabideetako iritzi-emaile euskalduna da. Euskal Herriko Unibertsitatean ikasi zuen kazetaritza, eta ondoren Multimedia Komunikazioko eta Gizarte Komunikazioko masterrak egindakoa da. Komunikazio digitalean eta transmedia alorrean egin du lan eta ikerketa, NOR ikerketa taldean, besteak beste. 2016tik hona, Euskal Hedabideen Behategiko koordinatzailea da.



Beatriz Narbaiza Amillategi

UPV/EHU

Beatriz Narbaiza Amillategi (Ermua, 1968) Kazetaritzan lizentziatua eta Ikus-entzunezko Komunikazioan doktorea. UPV-EHUko ikertzailea eta irakaslea gradu eta masterrean. Hainbat liburu-kapitulu eta artikulua argitaratu ditu.



Elena Neira Borrajo



Catalina Uzcanga Lacabe

Licenciada y Doctora en Sociología por la Univ. Deusto y tiene un curso de postgrado en Comercio Internacional. Ha trabajado en el comercio internacional y ha sido investigadora pre y postdoctoral en la Universidad de Deusto. En la actualidad, es Directora Asociada de CIES, Análisis de Mercado y Opinión, en Pamplona (www.cies2.com). Entre otros, CIES realiza el estudio de audiencia de medios de Euskadi y Navarra desde 1984. Se trata, por tanto, de una serie histórica que recoge el consumo de radio, prensa, televisión y, más recientemente, internet. El estudio, con una alta tasa de representatividad, recoge la información del consumo del día de ayer. Catalina Uzcanga es socia de Insights y Analytics, asociación que representa a todo el sector de la investigación de mercados y data science, y representante por España de The Research Alliance, asociación internacional de empresas de estudios de mercado y opinión. Además, es profesora asociada de Sociología en La Univ. de La Rioja.

Matrikula prezioak

AURREZ AURRE	2021-06-29 ARTE
OROKORRA	77,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	65,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	54,00 EUR
ELKAR txarteldunak	65,00 EUR
Euskalategi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	65,00 EUR
DONOSTIA KULTURA MURRIZPENA	65,00 EUR

ONLINE ZUZENEAN	2021-06-29 ARTE
OROKORRA	77,00 EUR
MATRIKULA MURRIZTUA OROKORRA	65,00 EUR
MATRIKULA EXENTZIOA	54,00 EUR
ELKAR txarteldunak	65,00 EUR
Euskalategi edo autoikaskuntzarako zentro homologatuko kide	65,00 EUR
DONOSTIA KULTURA MURRIZPENA	65,00 EUR

Kokalekua

Miramar Jauregia

Mirakontxa pasealekua 48, 20007 Donostia

Gipuzkoa